

II. ERANSKINA: Etiketatzeko energetikoa

Etiketako energetikoa jartzea Europako araua da. Erosleen eskura dagoen informazio tresna da, etxetresna elektriko baten energia eraginkortasuna ezagutzeko ahalbidetzen duena. Salgai dauden etxetresna elektriko guztietan nahitaez agertu behar du. Etiketako energetikoa xedatuta duten etxetresna elektriko motak energia gehien kontsumitzen dutenak dira:

- Hozkailuak eta izozkailuak.
- Garbigailuak
- Ontzi-garbigailuak
- Lehorgailuak
- Garbigailu-lehorgailuak
- Etxeko argi iturriak
- Labe elektrikoak
- Aire girotua.

7 eraginkortasun maila daude, **kolore eta letra bidezko kode** batez identifikatuak. Ekipo eraginkorrenak kolore berdea eta A letra dituzte, eta eraginkortasun gutxienekoak, berriz, gorria eta G letra.

Eraginkortasun handia	Energia-klasea	Energia-kontsumoa	Ebaluazioa
A	A	<%55	Energia-kontsumo txikia
B	B	%55-75	
C	C	%75-90	
D	D	%90-100	Energia-kontsumo ertaina
E	E	%100-110	
F	F	%110-125	Energia-kontsumo handia
G	G	>%125	

Eraginkortasun txikia

Iturria: <http://www.eve.es>

Etiketeko zati komun bat dute, marka, gailuaren izena, eta energia eraginkortasun mota agertzen dituenak; eta etxetresna elektriko batetik bestera aldatzen den beste zati bat, funtzionaltasunaren arabera beste ezaugarri batzuk jakinarazten dituenak.

Jakingarri gehiagorako: <http://www.eve.es/aula/etiquetado.swf>

